



“Laukizuzen asko dago munduan eta nik sortu dudana haietako bat besterik ez da. Ideia bezala existitzen da bakarrik lauizuzenaren ideia; erraza lauizuzenentzat eta zaila ideia gehienentzat.”. Donald Judd, 2000[1]

Donald Judd

Titulurik gabea, 85–065 zk. (Untitled, no. 85–065), 1985

Aluminioa

30 x 120 x 30 cm

Hermann und Margrit Rupf-Stiftung, Kunstmuseum Bern

© Donald Judd, VEGAP, Bilbo, 2016

Donald Judd (Excelsior Springs, Misuri, AEB, 1928–New York, AEB, 1994) filosofia, arte ederrak eta artearen historia ikasi zituen New Yorken. 1940ko hamarkadan ekin zion bere ibilbide artistikoari pintura lantzen, arte-aldizkarietan kritikak idazten bizimodua ateratzen ari zen bitartean. 1950eko hamarreko urteen amaiera aldera, pinturarekin pozik ez eta, adierazpide berrien bila hasi zen, eta bereziki eskultura eta arkitektura izango ziren harrez geroztik garatuko zituen adierazpideak.

Juddek hiru dimentsioko artea ikertzeari ekin zion bitartean, bere belaunaldiko beste artista batzuk sakonagotik aztertzen hasi ziren artelanaren inguru fisikoa, haiek artelanaren osagaitzat hartua [2]. Artista haiek, artista minimalista deitu zitzaientak, forma geometriko sinplifikatueta oinarrituta hasi ziren artelanak sortzen, material industrialak erabiliz eta artearen inguruko ideia tradizionalei desafio eginez.

Minimalismoa, Espresionismo Abstraktuaren aurkako indar gisa sortu zen.

Espresionismo Abstraktuak keinuan, intuizioan oinarritutako adierazpidea lantzen jardun zuen. Minimalismoak, berriz, materialak eta artelana antolatze moduak garatu zituzten, betiere espazioarekiko erlazioan. Hala, interakzio baten emaitza bihurtu zen artelana: objektuaren, ikuslearen eta kokatzen den espazioaren arteko interakzioa [3].

1980ko hamarkadan Juddek sortutako lanak minimalistatzat hartu zituzten, nahiz eta artistak ezeztatu mugimendu artistiko horren kide zenik. Etiketa hori ez zuen gustuko, mugimenduaren printzipio ugarirekin bat etorri arren, besteak beste, material industrialen erabilera, kolorearen, formaren, espazioaren eta materialaren purutasuna nabarmentzen duten lan abstraktuak sortzeko. [4].

Garai hartan, aluminiozko kaxa-sail bat eraikitzeari ekin zion Juddek, eta *Titulurik gabea, 85–065 zk.* dugu horitako bat: horman muntatzeko 1985ean Juddek asmatutako eskultura abstraktua. Kolore desberdinak eta neurri eta proportzio berdinak dituzten aluminiozko moduluez osatuta dago, kaxa irekien itxurarekin. Judden artelanen helburu nagusietako bat forma geometriko puruen erabilera zen. Forma horiek nabarmentzeko, artistak arreta berezia jartzen zuen kolorean, teknika industrialen bidez — termolakadura edo galbanizazioa — aplikatuta. *Titulurik gabea, 85–065 zk.* lanaren aluminiozko xaflak margotzeko erabilitako esmaltearen koloreak ez zituzten Juddentzat bereziki sortu, kolore industrialen karta estandar batetik aukeratu baitzituen artistak [5].

Bai Juddek bai beste artista minimalista batzuek uko egin zioten arteak norberaren ideiak jaso behar zituela eta artisten adierazpidea izan behar zuela defendatzen zuen ideiari. Horregatik, bere sentimenduak edo gogo-aldateak adierazteko baino gehiago, espazioa mugarriztatze soilik erabiltzen zuen Juddek kolorea [6]. Dena den, artelanaren funtsezko osagaia zen beretzat koloreen justaposizioa: zorrotzasun matematikoaz maneiatzen du kolorearen antolamendua, artelana era berezi batean koordinatuz, kolore-bloke angeluzuzenak eta kolore bereko unitateek kointziditu ez zezaten, elkarketa edo kontraste nabariak saihesteko asmoz [7]. Labur esanda, multzo orekatu bat sortzeko inolako asmorik gabe banatzen zituen koloreak bere artelanetan.

Juddek nahiago izaten zuen bere estiloa eta lana “pentsamendu konplexuaren adierazpen soila” zirela esatea [8]. Artistak zioenez, bere piezak, “objektu espezifikokoak” deitu ohi zienak, ez ziren ez pinturak ez eskulturak, objektu autonomo soilak baizik: euren izatea adierazten dute, ez dira beste edozer gauzaren irudia izateko sortuak [9]. Objektu horiek fabriketan sortzen zituzten material industrial arruntak erabiliz, aztarna pertsonalik ageri ez zezan. *Titulurik gabea, 85–065 zk. objektu espezifikoko* bat da, aluminiozko xafla margotuekin egina. Espazioa eta kolorea aztertzen ditu, eta horretarako ekoizpen industrialari dagozkion teknikak eta materialak erabili dira.

GALDERAK IKASLEENTZAT

Begiratu arretaz artelana. Zeintzuk dira bertan ikusten dituzun forma geometrikoak? Zer materialarekin eginda ote dago? Zerk ematen dizu atentzioa artelan honetan? Nola daude kokatuta laukizuzenak, nahiera edo irizpide bati jarraituz? Zergatik? Arrazoitu zure erantzuna. Artistak horman muntatzeko diseinatu zuen lan hau. Berdintsu ikusiko al

zenuke beste modu batera kokatuta balego? Desberdina izango al litzateke idulki baten gainean balego? Eta zuzenean zoruaren gainean balego?

Artistak dioenez, bere lehenengo lanak sortu aurretik, eskulturak beti erakusten ziren idulki gainean museoetan, ez zen ezer ere zoruan zuzenean jartzen [10]. Artelanak berdin ikusten direla uste duzu idulki batean edo zoruan egonda? Lan hau ikusten duzun modua nola aldatuko litzateke idulki batean, horman zintzilik edo zoruaren gainean jarrita balego? Zer nahiago zenuke eta zergatik? Artistak erabaki behar al du zure ustez bere lanak nola egon behar duen kokatuta? Edo erakusketa-aditu batek erabaki behar al du?

1985eko bere artelanetako asko Juddek asmatu eta bere agindupean Texaseko (AEB) estudioan egin zituzten. Sarritan, laguntzaileak edo fabrikatzaile industrialak izaten omen zituen, artistaren jarraibideak betez bere artelanak eraikitzen zituztenak; berak ez omen zituen ukitzen. Zer iruditzen zaizu Judden lan-prozesua? Zeintzuk dira izan ditzakeen alde onak eta txarrak? Zergatik erabaki ote zuen horrela lan egitea? Garrantzitsua al da zure ustez artelanaren eraikuntza-prozesuan artistak fisikoki parte hartzea? Ezagutzen al duzu horrela lan egiten duen edo lan egiten zuen beste artistarik?

Donald Juddek zioenez: “Norbaitek esaten badu bere lana artea dela, orduan artea da” [11]. Pentsatu ikaskideekin batera zer esan nahi duen horrekin. Ados al zaudete edo ez? Zergatik?

JARDUERAK IKASLEENTZAT

Sortu artelan minimalista bat

Hasteko, aztertu sakonki Arte Minimalista: testuingurua, ezaugarriak, etab. Bilatu mugimendu horretan lan egin zuten beste artista batzuk.

Gero, etxean, sortu artelan bat irizpide hauek oinarri hartuta:

- piezak abstraktua izan behar du
- formak sinplea eta geometrikoa izan behar du
- ekoizpen industrialeko materialak edo teknika industrialak erabili behar dituzu
- kolorearen purutasuna nabarmendu behar duzu
- artelana zerorren eskuekin landu duzula agerian uzten duen edozein aztarna ezabatu behar duzu

Eraman zure artelana ikasgelara eta alderatu ezazu zure ikaskideen artelanekin. Pentsatu zertan diren desberdinak eta antzekoak zuen artelan horiek.

Idatzi saiakera bat

Aztertu Donald Judd Fundazioaren webgunea. Zoaz arte-sailera eta begiratu arretaz artistaren lanak: <http://juddfoundation.org/artist/art/>. Zertan dute zure ustez elkarren antza? Zertan dira desberdinak? Aukeratu gehien gustatzen zaizun artelana, eta gutxien gustatzen zaizuna. Idatzi saiakera labur bat zergatik aukeratu duzun arrazoituz.

OHARRAK

1. Donald Judd, "Some aspects of colour in general and red and black in particular", *Donald Judd Colorist*, Ostfildern-Ruit, 2000, 111. or.
2. <https://www.guggenheim.org/artwork/1741>
3. <http://education.guggenheim.org/new-york/education/school-educator-programs/teacher-resources/arts-curriculum-online?view=item&catid=719&id=21>
4. <http://www.tate.org.uk/whats-on/tate-modern/exhibition/donald-judd>
5. <http://www.tate.org.uk/art/artworks/judd-untitled-dj-85-51-t07143/text-summary>
6. http://moma.org/learn/moma_learning/themes/minimalism/the-materials-of-minimalism
7. <http://www.christies.com/lotfinder/Lot/donald-judd-1928-1994-untitled-6026220-details.aspx/>
8. <http://www.tate.org.uk/whats-on/tate-modern/exhibition/donald-judd>
9. <https://coleccion.caixaforum.com/artista/-/artista/140/DonaldJudd>

HIZTEGIA

Espresionismo Abstraktua: Estatu Batuetan sortutako pintura-mugimendua, 1940ko hamarkadan New Yorken garatua. Mugimendu honetako artistak euren emozioak askatasun eta espontaneotasunez adieraztearen alde agertu ziren, errepresentazio edo errealtate fisikoak alde batera utzita.

Minimalismoa: 1960ko hamarkadan New Yorken sortutako estiloa. Lantzen dituen forma geometrikoak eta erabiltzen dituen baliabide urriak ditu ezaugarri. Artelana esentziara murriztea da helburua, azaleko edozein elementu ezabatuz. Arte minimalistan, funtsezkoa da artelanaren aurrean ikusleak bizi duen esperientzia.

BALIABIDEAK

Donald Judd Fundazioa

<http://juddfoundation.org/>

Donald Judd biografia gaztelaniaz

<https://coleccion.caixaforum.com/artista/-/artista/140/DonaldJudd>

Tate Gallery. Informazioa Donald Juddi buruz

<http://www.tate.org.uk/art/artists/donald-judd-1378>

Rupf Fundazioaren bilduma

<http://www.rupf-stiftung.ch/?m=4&m2=2&lang=e&show=2&dirid=26>

Solomon R. Guggenheim Museum. Hezitzaileentzako baliabideak Donald Juddi buruz

<http://education.guggenheim.org/new-york/education/school-educator-programs/teacher-resources/arts-curriculum-online?view=item&catid=719&id=21>